



PATXI GAZTELUMENDI

Nazio arteko begiratua

Atsegin dut Euskal Herrira kanpotik begiratzea. Ari naiz ikasten. Berriki Korrika bezalako ekitaldi, lasterketa, herri mugimendu baten azalpena entzun dut ingelesez Katalunian eta, hunkitu ez ezik, asko ikasi dut nire herriari buruz. Korrika bera Britainian edo Irlandan nola antolatzen duten eza-gutu ostean, pentsatzen dut gure herriak asko duela egiteko Europan, baina Europa zaharreko nazio berrietatik ere asko dugula guk geuk ere ikasteko. Eta, horregatik, nazio arteko begiratua eskaini gura nuke gure kulturgintzaren gaineko azterketa egiterakoan. Atzerritik, edo eremu urriko hizkuntzak dituzten herrietatik zelan ikusten gaituzten pentsatuz, guk beraengan zer ikus eta ikas dezakegun aztertuz eta, batez ere, gogoeta hauek izan daitezen elkarlanerako eta nazio-gintza / kulturgintza / herrigintza edo euskalgintzarako baliagarri. Gure kokapen estrategikoak, Europaren mendebaldean, Pirinioen bi aldeetan, kultur erreferente bilakatzen gaituelako gure mugetatik kanpo ari garen bakoitzean. Gure burua munduari erakusten diogun aldiro, saiatzen garen.

Katalunia, Irlanda edo Eskozia gertuagotik ezagutzeko parada izan dut azken urte honetan. Hizkuntza, kultura eta jite ezberdineko herriak diren arren, guztietatik atera daitezke ondorio eta ikasgaiak. Une eta prozesu oso garrantzitsuak bizi dituzte hirurek; ez soilik nazio-gintzaren alorrean, baita kulturaren, hedabideen, teknologia berrien eta komunikazioaren aroari dagozkionak ere.

2005ean katalanek puntuCAT domeinua eskuratzea lortu zutenetik, ugariak izan dira beraiekin euskaldunok izandako

harremanak, hitzaldiak, jarraipenak eta irakaspenak. Dagoeneko Katalunian hizkuntzaren normalizazioaren gakoetako bat da sarearen erabilera. PuntCat Fundazioak duela gutxi jakitera eman duenez, katalanaren erabilera %62,5ekoa da Katalunian errotutako enpresa eta erakundeen artean:

La normalització de la nostra llengua a la xarxa va per bon camí. Segons dades del Baròmetre de l'Ús del Català a Internet, fet per la Wiccac, el percentatge d'ús del català a Internet en webs d'empreses i d'organitzacions radicades a Catalunya és ja del 62,5%.

2013ko irailaren 11n, beraien egun nazionalan, #viacatalana fenomeno soziopolitikoak ere uhinak, hedabideak eta mundua bera ere astindu zituen. Ikustekoa eta bizitzekoa izan zen... normaltasun osoz, katalanez zelan mintzatu zitzazkion munduari. Normaltasun osoz, sarea bera herri borondatearen erakusleihu paregabe zelan bilakatu zen. Teknologia ezberdinak uztartuz; mugikorretarako aplikazioak, webgune interaktiboak, telebista eta irrati publikoak, herri ekimenen komunikazio euskarriak... guzti-guztiak baliatuz, Kataluniaren bidea zelan marraztu eta plazaratzeko gai izan ziren. Eredugarri bide horretan ere. 2014an iraila eta azaroa itzelak izango diren zantzuak badaude, eta Euskal Herritik, nazioartetik, adi-adi jarraituko dugu bide hori. Jarraitzen ari gara dagoeneko. Ezin ahantz daiteke, gainera, kultur mugimendu katalanistak irailaren 11koa prestatzen izan duen ardura eta jokamoldea, ANC —Kataluniako Biltzar Nazionala— indartu aurretik Omnium kultur mugimendua izan zelako independentziaren aldarrikapenetan aitzindari eta antolatzaile nagusietako bat.

Kataluniatik Irlandarako jauzia eginez gero, konturatuko gara zelan Irlandan gaelikoaren erabilera eta kontzientzia ere indartzen ari den. Haur eskola, ikastetxe eta unibertsitatean ere lekua egiten ari da irlandarren berezko hizkuntza. Hedabideetan indartsu ari da —irrati eta telebista publikoak ditu irla osoan ikusi eta entzuten direnak, eta gazteen artean ere oso proiektu berritzaile eta esanguratsuak ari dira gara-

tzen, *Nos* aldizkaria kasu. Horrez gain, aipatzekoa da BBC britainiar kateak espazio propioa daukala gaelikoarentzat no-la Interneten, zein irrati eta telebistan. Bake prozesuaren aitzinatzeak mesede egin dio hizkuntzari munduko irrati-telebista publiko garrantzitsuenean.

2014an irlandarrek bideak hartuko dituzte eta berriz ere korrika abiatuko dira hegoaldean dagoen Cork hiritik Ipar Irlandako Belfastera; bertan, martxoaren bukaeran emango diote amaiera. www.rith.ie gaelikozko webgunean jasoko du irakurleak informazio gehiago.

Euskal Herrian ez bezala, hizkuntzaren normalkuntzaren afera bake prozesuaren puntu garrantzitsu bezala adostu zuten irlandarrek, eta orain arte bestelako zereginetara bideratutako indarra hizkuntzaren berreskurapenean jarria dute irlandar errepublikano ugari. Azken urteotan, Ipar Irlandan nabaria izan da gaelikoaren aldeko presentzia eta lana. Proiektu berri ugari sortu da, eta mugimendu berri eta bizia antolatzen ari dira, ez soilik iparraldeko sei konderrietan, Irlanda osoan baizik.

Ahulago dabilta hizkuntza kontuetan Eskozian, nahiz eta nazio bezala oso indartsu plazaratu den eszenatoki politikorra. 2014 urtea Eskozian ere erreferendum urtea izango denez, arretaz jarraitu beharko diogu bertan gertatzen denari. Baina dagoeneko sendotu dira Euskal Herriaren eta Eskoziaren arteko lotura eta harremanak. Unibertsitatean, kultur mailan, politikoki... azken Durangoko Azokan ikusi ahal izan dugun bezala.

Konbergentziaren kultura

Atzerritik begiratzen dugunean, beti izaten dira adibide, aditu eta erreferentzia berriak. Henry Jenkins, adibidez, hedabide eta sareko komunikazioaren inguruko aditua da. *Transmedia* kontzeptuaren asmatzailea zelako jarri nintzen bere testuak eta gogoetak irakurtzen, eta hedabideen ekosistemari buruzko gogoeta interesgarriak egin izan dituelako

ekarri nahi nuke orriotara. Badu Jenkinsek oso liburu interesgarria: *Convergence Culture*. Eta gure hedabideen ekosistemari begira, oso gogoeta interesgarriak egiten dituela iruditzen zait, ezberdintasunak ezberdintasun, gogoetak lokalizatu eta gureari lotzea beti delako ariketa interesgarria.

Hara zer dioen Henry Jenkinsek konbergentzia kontzeptuari buruz:

By convergence, I mean the flow of content across multiple media platforms, the cooperation between multiple media industries, and the migratory behaviour of media audiences who would go almost anywhere in search of the kinds of entertainment experiences they wanted. Convergence is a word that manages to describe technological, industrial, cultural, and social changes, depending on who's speaking and what they think they are talking about.

Eta gurean, zorionez esango dugu, badira hedabide eta plataforma ugari, asko eta asko herri ekimenez martxan jarritakoak; maila lokalean, nazio mailan, formatu ezberdinetan, hizkuntza ezberdinetan baina publiko zabal bati zuzendua. Kooperazioaz zer ulertzen dugun guk geuk bakarrik dakigun arren, nago ni oraindik hedabideen arteko zubigintzan asko daukagula egiteko. Ez dira aspaldikoak hedabide txikien arteko gerra txikiak, elkarren lehian, publiko berdinari antzeko gauzak saltzeko asmo nekagarrian. Audientzia mugatua daukagu Euskal Herrian. Telebista, irrati, egunkari, aldizkari, gune eta plataforma ezberdinak etengabe ari dira bere publikoa izan behar duenari gauzak eskaintzen... eta sarritan gauza bera euskarri ezberdinetan baina une berean eskaintzen zaigu. Oso adibide gutxi ditugu elkarrekin lan egin eta euskarri ezberdinetan modu antolatu, koherente eta interesgarri batean edukiak eskaintzeko. Eta hori gure hedabideen ekosistemaren kalterako besterik ez da. Hor asmatu beharko litzatekeelakoan nago. Hizkuntza txiki bateko hedabide txikiak baino ez dira gure inguruan ditugun ia guztiak, baliabide gero eta urriagoekin, gogo izugarriarekin, baina ipar ezberdinekin. Aldaketa garaiak bizi ditugunez —tek-

nologikoak, politikoak, sozialak, kulturalak...—, hedabideek ere, norik berean jarraitu barik, hobe lukete konbergentzia kulturaren baitan hausnartzen hasiko balira. Henry Jenkins komunikatzailearen gogoetek ez digute horretan kalterik egingo, eta esperientzia txikiak abian jarrita... herri mailan, eskualde mailan, gertakari historiko batzuen inguruan, kultur emanaldi ezberdinen baitan... asko daukagu ikasteko eta handitzeko. Guk euskal hedabideen ekosistema eraikitzeko urrats asko eman behar ditugu oraindik.

Paperik gabeko kazetaritza

Hedabideez mintzo garenean, kioskoa daukagu sarri bu-ruan, telebista kanalak edo irrati uhinak. Baina hedabideen ekosistema, informazioarena... izugarri handitu da azken urteotan. Sareak eta euskarri berriek —tabletak, smart mugikorrak, orotariko pantailak— areagotu egin dute informazioaren errealitatea, sorkuntza eta jarioa. Komunikatzeko moduak eta kontsumitzeko erak aldatu dira. Eta hedabide hegemonikoei erantzuteko, bestelako herri hedabide, tresna alternatibo, herri ekimenetako gunek eta abarrak sortu dira han-hemenka. Aberatsak gara horretan. Ohiko prentsan bati ere oihartzunik jaso ez zuten topaketa batzuk izan ziren udazkenean Sestaon, Txirbelenea kultur gunek biziberrituan. Euskal Herriko txoko ugariatatik hurbildutako informatzaileak batu ziren bertan. Herri mugimenduei lotutako informazio kanalak, irrati libreetako kideak, kazetari profesionalak, informatzaile grafikoak, multimedia adituak, Interneten eta hacktibismoan aritzen diren kideak... ekosistema berri bateko kideak denak. Profesionalak batzuk eta boluntario nekaezinak gehienak. Komunikazioaz, propagandaz, informazioaz eta gauza oso serioez aritu ostean... herri hedabide alternatiboek mapa zelan osatzen den marraztu zen zapatu goiz batean Sestaon. Eta aurrerantzean ere horrela jarraitzeko asmoa agertu zuten. Orain arteko bidea ikuspegi kritikotik landuta, jarraitzeko arrazoiak badaudela iritzita...

Hala Bedi irrati librearen 30. urteurrenaren karietara, komunikazio alternatiboak Euskal Herrian adibide eta euskarri on asko dituela ohartzeko parada egon zen bertan. Ipar Euskal Herriko erreferentzia berriak: Kanaldude telebista, Kazeta.info, euskal irrastien martxa, beraien arteko elkarlana... agenda osatu eta aktibatzekeo zailtasun eta aukerak, formazioaren beharra, herri mugimenduekiko loturak... gai asko eta interesanteak.

Aste berean, ordea, Ateak ireki Nafarroako webgunea zarratzea eskatu zuen agindu judizial anker batek. Nafarroan informazio librea lantzen duen gunea itxita, Nafarroan egun bizi diren gatazka, arazo eta txantxuilo ugari estaliko dituztelako esperantzan. Ez dira konturatu ateak irekita mantentzeko sasoia dela hau, antza. Eta leihoak eta ateak irekitze horretan, datorrela aniztasuna, askatasuna, informazioa, jarioa gurera. Paperik gabe nahi gaituzte, antza. Legalitatetik kanpo. Era berean, abenduaren 21ean itxi zituen ateak eta leihoak eta kioskoetako presentzia *Euskal Herriko Kazeta*-k, *Le Journal du Pays Basque* egunkariak. Euskara oraindik ofiziala ez den eremu batean, frantziar egunkarien monopolioari aurre egin nahian pasa ditu hamabi urte, baina ezinak handiagoak izan dira indarrak baino. Ea urte berriarekin Antton Etxeberri zuzendutako proiektu berritzaileago baten argia ikusten duten.

Baina erru guztia ez da beti besteena izaten. Gurean ere, kazetaritza desprestigiatzen ari den lanbidea da. Izar eta mediatikoak diren profesionalak badiren arren, lan baldintza gero eta eskasagoak bizi dituen ogibidea da hori. Ostantzeko lan jardun esplotagarrienen pare jartzen da zenbait kasutan gremio hori ere. Eta euskaraz jardutea ez da salbuespen. Baina izan beharko luke. Herri ekimenetik jaio, laguntza publikoak jaso eta etengabe ildo editorial konprometituak agertzen dituzten hedabideek ezingo lituzkete langileen baldintzak baliatu proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko. Larria da Sestaon bertan jakinarazi ziguten kasua. Euskal hedabide garrantzitsuenek, hemengo telefono

konpainia indartsu batek eta euskal kulturgintzako enpresa handienak osatutako telebistak paperik gabeko kontratuak egiten dihardu, eta Errioxan ardoa biltzen diren tenporeroenak baino baldintza txarragoetan lan egitera behartzen ditu ordezkapenak egiten dituzten langileak. Ez dago eskubiderik kontraturik gabe ordua bederatzi euro kobratzeko. Ez dago eskubiderik langileen baldintzekin orain bai eta gero ere bai gura dena egiteko. Greba orokorretan ildo editorial konprometitua agertu arren, herri ekimeneko eta laguntza publikoak jasotzen dituzten hedabideek langileen lan baldintza duinak bermatu behar dituzte. Eta horrek euskalgintzaren baitan funtsezko baldintza izan beharko luke. Ondorioak negargarriak direlako. Ezin dezakegu *paperik gabeko kazetaritza* bultzatu.

.eus euskararen herria sarean

Baina hala ere jarraitzen dugu lanean euskaldunok, etenik gabe, gogotsu. Euskararen herriak lorpen handiak izan ditu azken urteotan, eta inguruko hizkuntza zaharrena izanagatik ere, moderno ageri zaigu egungo testuinguruan. Informazioaren aroan euskara hizkuntza bizia da, euskarazko edukiak eta tresnak garatzen eta indartzen ari dira jendearen borondatearen eta lan gogoaren eraginez, euskararen herriak komunitatea eraikitzen dihardu Interneten, sarean, munduan. Egun gauza arrunta da gehien erabiltzen ditugun tresnak —nabigatzailea, posta, sare sozialak, blogak egiteko softwarea...— euskaratuak izatea eta azken bertsiorekin lan egitea. Euskaraz eta libre aritzen gara milaka euskaldun, eta euskaraz eta libre aritu gaitezene lanean dihardute hamarka batzuek, etenik gabe Librezeale bezalako elkarteetan, itzulpen eta hizkuntza teknologietan adituak diren enpresa eta ekimenetan, gobernu kanpoko edo gobernuen babespeko erakundeetan...

Baina 2013. urtea garrantzitsua izan bada, puntuEUS domeinua eskuratzeko eta lortzeko urtea izan delako da. Uda-

berrian jaso genuen albistea nazioartean domeinuak kudeatzen dituen ICANN erakundearen eskutik, eta 2014an martxan ikusiko ditugu .eus amaiera duten domeinu ugari. Ehunka, milaka izango diren esperantzan. Gu ere, apurka-apurka, Kataluniaren edo beste herri batzuen atzetik goaz. Sarean, kulturgintzan, herrigintzan. Gure bidea eginez, hori guztiori lortzea eta lantzea gure esku dagoelako.¶